



Sorturen Kode etikoa

Sarrera

Kode Etiko honek SORTUk Euskal Herriaren eraldaketa sozial, demokratiko, feminista, ekologistari eta subiranistari begira duen konpromiso politikoaren oinarri etikoa ezarri eta finkatzea du helburu. Kode honek integritatea, justizia, gardentasuna, erantzukizun partekatua eta eredugarritasuna ditu printzipio gidari, eta horiek izan behar dute SORTUren zein haren komunitate politikoa osatzen duten pertsona guztien jardunaren oinarri: kargu publikoak, barne-karguak, afiliatuak, sinpatizatzaileak, kolaboratzaileak eta langile teknikoak.

Kode Etiko hau ez da soilik arau multzo bat, baizik eta SORTUk politika eraldatzaile, justu eta erabat demokratiko batekin duen konpromiso kolektiboaren adierazpena, tresna bizi eta dinamiko gisa ulertzen dena, eta honako helburu hauek ditu:

- Kudeaketa politiko eta instituzional eraginkor, parte-hartzaile eta garden bat sustatzea, ikuskaritza publikoaren menpe eta alderdiaren oinarri fundazionalekin koherentziaz.
- Militantziari eta ordezkari politikoen kargudunei bizitza politikoan, sozialean eta antolakuntzan jokabide etikorako gida bat eskaintzea.
- Portaera desagokiak, legez kontrakoak edo SORTUren balioekin bateragarriak ez direnak prebenitzeko, hautemateko eta zigortzeko tresna eraginkor bat ezartzea.
- Herritarren konfiantza indartzea SORTUren proiektu politiko eraldatzailean, eredugarritasuna eta koherentzia sustatuz.
- Irregularitasunak edo urraketak salatzen dituzten pertsonen babesa bermatzea, kanal seguru eta konfidentzialen bidez, indarrean dauden estatuko zein europar arauak betez.

21

Kode Etikoa SORTUren barne-araugintzaren sisteman sartzen da, eta bere Estatutuen 11. artikuluan ezarritakoa garatzen du; artikulua horrek berariaz agintzen dio Batzar Nazionalari balio arauemailea duen Kode Etiko batez hornitzeko. Ondorioz, bere printzipio, balio eta konpromisoak derrigorrez bete behar dituzte alderdiko afiliatu, kargu publiko eta organiko guztiek, eta horiek ez betetzeak diziplina-erantzukizunak ekar ditzake, Diziplina eta Berme Kodean aurreikusitakoaren arabera.

Era berean, 2015eko martxoaren 30eko 1/2015 Lege Organikoak ezarritako betekizunetara egokitzen da. Lege horrek pertsona juridikoen erantzukizun penala ezartzen du Espainiako Estatuko Zigor Kodean eta, zehazki, alderdi politikoen finantzaketa, administrazio publikoaren aurkako delituak eta diligentsia, betebeharrak etiko eta gardentasun instituzionaleko arauak arautzen ditu.

Printzipioak eta balioak

SORTUK bere jarduera politiko eta instituzionala honako printzipio gidari hauetan oinarritzen du:

- **Justizia Soziala eta Berdintasuna:** Eskubide indibidual eta kolektiboen defentsa aktiboa, eta bazterkeria, diskriminazio edo desberdintasuna eragiten duten sistema patriarkal, kolonial, kapitalista edo arrazistaren aurkako borroka.
- **Inpartzialtasuna eta Independentzia:** Eginkizun publiko eta organikoen gauzatzea interes pribatu, kanpo-presio edo eragin desegokien menpe egon gabe.
- **Gardentasuna eta Informaziorako Sarbidea:** Alderdiaren jarduera, ordezkarien ekintza eta erabaki politikoaren inguruko informazio esanguratsua herritarrei eskuragarri jartze-ko konpromisoa, betiere legezko mugekin (informazioaren segurtasuna, intimitatearen babesa, datu pertsonalak, eta abar) bat eginez.
- **Egiazkotasuna, Koherentzia eta Zintzotasuna:** Egiarekiko konpromisoa, hitzaren errespetua, kontuak emateko borondatea eta esandakoaren eta egindakoaren arteko koherentzia.
- **Komunitateari Zerbitzua:** Jarduera politikoa zerbitzu publiko gisa ulertzea, gehiengo sozialaren bizi-baldintzak hobetzeko eta interes kolektiboen defentsarako tresna gisa.
- **Erantzukizuna, Profesionaltasuna eta Eraginkortasuna:** Eginkizunen betetzea trebetasun teknikoarekin, konpromiso politikoarekin, zintzotasun intelektualarekin eta gizar-te-erantzukizunarekin.
- **Eredugarritasuna eta Lidergo Etikoa:** Alderdiaren eta bere ordezkarien irudi etikoa indartzen duten jokabide publiko zein pribatuak.
- **Austeritatea eta Erantzukizun Finantzarioa:** Baliabide ekonomiko publiko zein alderdikoei erabilera zorrotz, garden eta solidarioa ematea.
- **Elkarrizketa, Negoiazioa eta Gatazken Ebazpen Demokratikoa:** Hausnarketa, iritzi desberdinen errespetua eta akordioaren zein bestelako erresoluzio bideen bilaketa sustatzea.
- **Giza Duintasunaren Errespetu Integrala:** Indarkeria fisiko, sinboliko edo estruktural oro irmoki gaitzestea, eta harreman-eredu bidezko, zaintzailean eta berdintasunean oinarritua defendatzea.

Konpromiso etiko eta politikoak

SORTUK eta bere proiektuan inplikaturako pertsona guztiek honako konpromiso etiko eta politiko hauek hartzen dituzte:

1. Modu demokratikoan onartutako ildo politikoa gauzatzea, jasotako mandatuarekiko leialtasunez eta eraldaketa-bokazioz.
2. Kargu publiko zein barne-karguak zintzotasunez, lan-etika sendoz, dedikazioz eta zerbitzu publikoaren bokazioz betetzea.
3. Alderdiaren egitura interes pertsonal, ekonomiko edo politiko pribatuak asetzeko erabil dadin saihestea.
4. Finantzaketa opako, legez kanpoko edo botere ekonomiko/bankuarekiko dependentzia duten iturriak sistematikoki baztertzea.
5. Edozein giza eskubideren aurkako eraso edo bortxaketa dakarren edozein ekintza edo jarduera arbuiatzea, bai eta helburu politikoak lortzeko indarkeriaren erabilera ere.
6. Portaera irregular edo ustelen aurkako prebentzio, kontrol eta zigor sistema integrala ezartzea, betebeharrak etikoen betetzea bermatuko duen barne-egitura eraginkor eta gardena osatuz.
7. Politiken eraikuntzan parte hartu duten gizarte eta herri kolektiboen egiletza aitortzea, ekimen kolektiboen jabetze desegokia saihestuz.
8. Aurrekontu parte-hartzaileak, herritarren auditoria eta kudeaketa publikoaren kontrol demokratikoa ahalbidetuko duten tresnak sustatzea.
9. Emandako iritziaren neutraltasuna arriskuan jar dezaketen opariak, mesedeak edo bestelako abantailak ez onartzea.
10. Genero-berdintasuna eta emakumeen, pertsona transen eta ez-binarioen parte-hartze eraginkorra sustatzea alderdiaren eta instituzioen maila guztietan.
11. Zaintza, ongizate emozionala eta justizia errelazionalaren ikuspegia barne bizitzan txertratzea, ingurune seguru eta jasangarriak bultzatuz.
12. Indarkeria matxista, arrazakeria, xenofobia, LGTBifobia eta bestelako gorroto- edo diskriminazio-formen aurkako tolerantzia gabeko politika ezartzea.
13. SORTUK indarrean duen Indarkeria Matxistaren Kasuen Kudeaketarako Barne Protokoloa ezagutzea, errespetatzea eta aplikatzea (ikus Estatutuen 9.h artikulua).

14. Ustelkeria, eragin-trukea, diru-funts publikoen erabilera desegokia eta berdintasunaren eta justiziaren printzipioen aurkako jokabide oro gaitzetsi eta zigortzea.
15. Barneko, administrazio- edo epaile mailako ikerketak erraztea eta eragozpenik gabe laguntzea, interes publikoko gertakarien inguruko egia argitzeko xedez, ustelkeria edo integritate instituzionalaren aurkako jardueri lotuta.
16. Konfrontazio politikoan errespetua defendatzea, eraso pertsonalak, intimitatearen urraketak edo difamazio-estrategiak saihestuz.
17. SORTUk bultzatutako prestakuntza-programetan parte hartzea, Kode Etikoaren inguruko eduki, ondorio eta betebeharren ezagutza etengabe eguneratzeko.
18. SORTUko kidea izateari uzten zaionean, kargu publikoaren akta berehala entregatzea, ulertuz kargua alderdiarekin eta ez proiektu pertsonalarekin lotuta dagoela.
19. Jabetza-adierazpen publikoa aurkeztea kargua hartu aurretik (legeak hala agintzen badu) eta kargua amaitzean, alderdiak hala erabakitzen badu, haren publizitatea baimenduz.
20. Karguaren ondorengo muga etikoak errespetatzea: enpresa pribatu edo interes gatazka-tsuekin lotutako entitateetako zuzendaritza-karguak ez hartzea ezarritako epeetan.
21. Euskara hizkuntza nagusi gisa erabiltzea, eta gaitasunik ez izatekotan, SORTUk eskaintzen duen prestakuntza baliatuz hura ikasteko konpromisoa hartzea.
22. Bere irudia, profila eta oinarrizko datuak zabaltzeko baimena ematea, gardentasun eta ordezkaritza publikoaren izenean.
23. SORTUk interes orokorraren izenean, Kode Etikoaren sinadura edo atxikimendua modu instituzionalean zabaltzea edo argitaratzea baimentzea, pertsona horrek barne edo kargu publikoen ardura hartzen badu.

Arauk betearazteko sistema

SORTUK ardura osoz hartuko du bere gain betebeharrak arautzaileak betetzeko sistema egituratu bat ezartzea eta mantentzea (*compliance*), bere jardura politiko eta instituzionala ezarritako printzipio etiko, legal eta antolakuntzazkoekin bat datorrela bermatzeko. Sistema honek ondorengo elementuak jasoko ditu:

- **Arriskuen ebaluazioa:** Periodikoki aztertuko dira erakundea edo hura osatzen duten ki-deak jasan ditzaketen arrisku penal, finantzario eta etikoak.
- **Jokabide-protokoloak eta barne-manualak:** Etengabe eguneratuko diren dokumentu arautzaileak diseinatuko dira, hainbat arlotan jokabide-irizpideak zehazteko: finantza-kudeaketa, baliabideen erabilera, kontratazioa, ordezkaritza instituzionala, hirugarrenetikiko harremanak, eta abar.
- **Betebeharrak etikoaren arduraduna:** Arduradun bat edo batzorde bat izendatuko da, Kode Etikoa hau eta hari lotutako protokoloak gainbegiratu, aholkuak eman, berrikusi eta koordinatzeko.
- **Barne-auditoria eta kontrolak:** Aldizkako egiaztapen sistemak ezarriko dira, betebeharrak betetzen diren egiaztatze, irregulartasunak detektatzeko eta hobekuntzak proposatzeko.
- **Etengabeko prestakuntza:** Kide guztien gaitasuna hobetuko da etikarekin, indarreko legeriarekin, delituen prebentzioarekin eta kontuak ematearekin lotutako arloetan.
- **Alerten sistema goiztiarra:** Irregulartasun arrisku edo jokabide desegokiak hautemateko mekanismoak ezarriko dira, arau-hauste bihurtu baino lehen esku hartzeko.
- **Interes-gatazken erregistroa:** SORTUrekin lotura duen edonork interes-gatazka erreal edo potentzialak adierazi, erregistratu eta konpontzeko prozedura espezifikoa izango du eskuragarri.

Kanal etikoa eta salaketa-kanala

SORTUk mekanismo seguru, eskuragarri eta eraginkorrak ezarriko ditu, antolakundearekin lotura duen edozein pertsonak Kode Etiko honekin lotutako egoerak kontsultatu, iradoki edo salatu ahal izateko.

- **Etika-kanala:** Hausnarketa eta orientaziorako espazioa izango da, zalantza, dilema etiko edo arauen interpretazioaren inguruko anbiguotasunak argitzeko. Konfidentziasunez kudeatuko da eta prebentziora bideratuta egongo da.
- **Salaketa-kanala:** Europako 2019/1937 Zuzentarauarekin bat datorren sistema formal bat izango da, eta horren bidez aurkeztu ahal izango dira Kode Etikoaren aurkako urraketak edo portaera irregularrak. Hona hemen bermatzen dituen printzipio nagusiak:
 - Salatzailearen konfidentziasuna.
 - Anonimotasunaren aukera.
 - Errepresalien aurkako babesak.
 - Kudeaketa independentea eta berme guztiekin.
 - Epe zehatzetan jarraipena eta ebazpena.

Salaketa gezurrezkoak edo oinarririk gabekoak direla frogatzen bada, kasua aztertuko da eta, hala dagokionean, barne-zigorrek ezarriko dira.

Diziplina prozedurak

Kode Etiko hau ez betetzeak SORTUren Diziplina- eta Berme-Kodean xedatutakoari jarraituko dio osorik. Dokumentu horrek arau-hausteen tipifikazioa, ezar daitezkeen zigorrak eta prozedura diziplinarioaren garapena arautzen ditu. Zehazki, Kode Etikoaren urraketa oso larritzat jo daiteke, aipatutako Diziplina-Kodearen 4. artikuluaaren arabera.

Zigorrak eta behin-behineko neurriak, kasuan kasuko irizpide eta bermeen arabera ezarriko dira, eta horiek Diziplina-Kodeak eta alderdiaren Estatutuek ezartzen dituzte.

Prozedura diziplinarioa barne-araudiak ezarritako fase, epe, eskubide eta organo eskudunen arabera garatuko da, eta honako berme-printzipio hauek bermatuko dira: legalitatea, inpartzialtasuna, kontrajarritasun-printzipioa, defentsa-eskubidea, proportzionaltasuna eta errugabetasun-presuntzioa.

Trebakuntza, zabalpena eta eguneraketa

Kode Etiko hau eraginkorra izan dadin, SORTUk honako konpromiso hauek hartzen ditu bere gain:

- **Prestakuntza derrigorrezkoa:** Kargu publiko edo barne-karguak betetzen dituzten pertsonen prestakuntza espezifiko jasoko dute, Kodearen edukiaren, aplikazioaren eta ondorioen inguruan.
- **Barne eta kanpo hedapena:** Kodea eskuragarri egongo da formatu digital eta inprimatuan, bai SORTUren barne-komunitatearentzat bai herritarrentzat, gardentasuna sustatuz.
- **Sentsibilizazio-ekintzak:** Formazio-jarduerak, mintegiak eta material dibulгатiboak antolatuko dira kultura etiko partekatu bat sustatzeko.
- **Aldizkako eguneraketa:** Gutxienez bi urtean behin Kodea berrikusiko da, eta beharrezkoa bada, Nazio Batzarrak eguneratuko du, Nazio Kontseiluak proposatuta.
- **Betetze-mailaren ebaluazioa:** Segimendu-txostenak prestatuko dira, zuzendaritza politikoaren organoei eta militanteei aurkezteko.

Azken xedapenak

Kode Etiko honek izaera arauemailea du eta SORTUrekin lotura duten pertsona guztiek bete beharrekoa da. Ez betetzea Diziplina eta Berme Kodeko 4. artikuluaaren arabera zigortuko da.

Kode Etiko hau sinaduraren bidez espresuki onartzea eta atxikitzea izango da SORTUko barne-ardura bat edo kargu publiko bat eskuratzeko edo mantentzeko baldintza ezinbestekoa eta saihestezina.

Kode honen ezjakintasunak ez du salbuespenik emango haren betebeharrak betetzetik.

Edozein aldaketa edo gehigarri Nazio Batzarrak onartu beharko du.

Kode hau SORTUren Nazio Batzarrak onartu bezain pronto jarriko da indarrean, eta alderdieraren komunitate osoarentzat loteslea izango da.

